



UDAL LIBURUTEGIA ERABILTZEKO ARAUAK

Anoetako liburutegia zabalik dago herritar guztientzat eta doan eskaintzen ditu informazioa, kultura eta aisialdia eskuratzeko zerbitzuak. Liburutegiak zerbitzu publikoak dira eta berauetan arauak betetzea guztion betebeharra da.

Araudi honen osaketa eta jarraipena Anoetako Udaleko Kultura batzordearen eskumena da, eta liburuzainak du betearazteko ardura.

Araudi hau lege honetan oinarrituz egin da: 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiari buruzkoa. Hortaz, LIBURUTEGIA ERABILTZAK ARAUDI HAU ONARTZEA DAKAR:

- Erabiltzaileek errespetuzko jarrera izango dute liburuzainarekin eta gainontzeko erabiltzaileekin.
- Liburuzainaren esanak bete eta aintzat hartuko dira.
- Liburuzainak eskatuz gero, erabiltzailea identifikatuko da.
- Liburutegiko instalazioak, ekipoa, fondoak eta jabetzak kaltetu gabe eta behar bezala erabiliko dira.
- Bolumen baxuan hitz egingo da, eta bertan poliki eta patxadaz ibiliko da, zaratarik atera gabe.
- 7 urtetik beherako umeak arduradun batekin sartuko dira.
- Gailu elektronikoak (tabletak, sakelako telefonoak etab.) bolumenik gabe erabiliko dira.
- Liburutegiko ordenagailuak informazioa eskuratzeko, korreoa kontsultatzeko eta eskolako lanak egiteko soilik erabiliko dira. Erabiltzeko denbora liburuzainak zehaztuko du, eskatzaile kopuruaren arabera.
- Animaliak ezinduei laguntzeko direnean soilik sartuko dira.
- Bizikletak eta patineteak eraikinetik kanpo utziko dira
- Haur kotxeak pasilloan utziko dira (2 urte bitarteko haurren kotxeak onartuko dira soilik).
- Patinak, baloiak edo antzekoak liburutegiko sarreran utziko dira.
- Liburutegian ezin da jan, edan, erre eta drogarik hartu.

OHARRAK:

- Adin txikiko erabiltzaileen erantzuleak beren guraso edo tutoreak dira.
- Behar izanez gero, erabiltzaileek erreklamazio-orriak eska ditzakete liburutegian.



ARAUDIA HAUSTEAREN ONDORIOAK ETA PROZEDURA

Jarrera eta jokabideari dagokienez:

- Arau-haustea lehen aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta egun horretan ezingo du berriro sartu.
- Bigarren aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta astebetez ezingo du berriro sartu.
- Hirugarren aldiz egiten bada, erabiltzailea liburutegitik kanporatuko da, eta 6 hilabetez ezingo du berriro sartu.
- Arau-haustea errepikatzen bada, edo arau-hauste larria gertatuz gero, Kultura batzordeak aztertu eta erabakiko ditu hartu beharreko neurriak.

Ondasun higigarri eta higiezinei dagokienez:

- Erabiltzaileak altzariak, liburuak, kristalak edota bestelako ondasun materialak kaltetuko balitu, kalte-ordainen kargu egin beharko du.